ETXAURIN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA SORTZEKO PROZESUA

*PROCESO PARA LA CREACIÓN DE UNA COMUNIDAD ENERGÉTICA EN ETXAURI*

| 7.SAIOA | PARTAIDEAK / *Asistencia* |
|---|---|
| 2023-09-12<br>18:00-19:30 | Herritarrak / *Ciudadanía*: 7 (4 emakume, 3 gizon) |
| | Udala / *Ayto.* : Ainara Baquedano Munarriz (Energia eta ingurumeneko zinegotzia) |
| | Dinamizazioa / *Dinamización*: Maria Arretxe (Goiener), Ion Gonzalez (Goiener), Uxune Alustiza (Emun Koop.E) |

## 1. Errepasoa / *Repaso*

Prozesuaren ze momentutan gauden errepasoa egin dugu:

- Bi proiektu adostuta: instalazio fotovoltaiko partekatuarekin hasiko gara, eta, pixkanaka, Valdizarberekin kontratu bilateralaren aukera aztertzen hasiko gara.
- Instalazio fotovoltaikoa dimentsionatzeko, udan fakturak biltzen aritu gara.

*Hemos hecho un repaso del momento en el que estamos en este proceso:*

- *Dos proyectos acordados: empezaremos con la instalación fotovoltaica compartida, y, poco a poco, abriremos la vía de exploración con la empresa Valdizarbe para un contrato bilateral.*
- *Hemos estado recogiendo facturas en verano para poder dimensionar la instalación.*

## 2. Instalazio fotovoltaikoaren aurre-bideragarritasuna / *Previabilidad de la instalación fotovoltaica*

Mariak eta Ionek instalazio fotovoltaikoaren dimentsioaren aurre-bideragarritasun azterketa aurkeztu dute, udan jasotako fakturetako datu errealak erabilita (aurkezpena Driven):

- 31 faktura bildu ditugu.
- 4 azken momentuan, eta 2ren datuak ezin izan dira atera.
- Bi kalkulu egin dituzte: betetik, 25 fakturekin, eta, bestetik, dagoeneko instalazioa eginda daukaten etxeak kenduta, 15ekin.
- Ondorioa: igerilekuko aldageletako teilatuan badago lekua oraingo interesari erantzuteko.

**25 CUPSekin:**




*María y Ion han presentado el estudio de previabilidad de la instalación fotovoltaica, basado en los datos reales de las facturas recogidas este verano (presentación en Drive):*

- *Se han recogido 31 facturas.*
- *4 en el último momento, de 2 no se han podido sacar datos.*
- *Han hecho dos cálculos: por un lado, con 25 facturas, y, por otro, quitando las viviendas que ya tienen su instalación, con 15 facturas.*
- *Conclusión: en tejado de los vestuarios de las piscinas hay espacio para el interés de este momento.*

***Con 25 CUPS:***



**15 CUPSekin:**

| NÚMERO DE PANELES | POTENCIA (kWp) | m² DE TEJADO | ENERGÍA AUTOCONSUMIDA |
|---|---|---|---|
| 15 | 7,00 | 42[1] | 20,48%[2] 69,49%[3] |

Tu instalación en números:

| PRECIO CON IVA | AMORTIZACIÓN (AÑOS) | AHORRO ANUAL | AHORRO NETO A 30 AÑOS |
|---|---|---|---|
| 12.874 € | 7,5 | 1.480 € | 34.892 € [5] |
| Con compensación de excedentes: | 6,3 [4] | 1.746 € [4] | 43.496 € [4][5] |

Hurrengo pausoak:

- Faktura aurkeztu dutenei azterketako euren datu zehatzak bidali, Mariak prestatuko ditu PDFak.
- Bilera batean edo beste nolabait, interesa agertu dutenekin egon, aurrera jarraitu nahi duten lehen kriba pasatzeko.
- Aurrera jarraitu nahi dutenekin, hainbat datu jaso beharko dira: paper bat sinatu euren datuak komunitateari emateko, DNIak...

*Con 15 CUPS:*

| NÚMERO DE PANELES | POTENCIA (kWp) | m² DE TEJADO | ENERGÍA AUTOCONSUMIDA |
|---|---|---|---|
| 15 | 7,00 | 42[1] | 20,48%[2] 69,49%[3] |

Tu instalación en números:

| PRECIO CON IVA | AMORTIZACIÓN (AÑOS) | AHORRO ANUAL | AHORRO NETO A 30 AÑOS |
|---|---|---|---|
| 12.874 € | 7,5 | 1.480 € | 34.892 € [5] |
| Con compensación de excedentes: | 6,3 [4] | 1.746 € [4] | 43.496 € [4][5] |

*Siguientes pasos:*

- *Enviarles a las personas que han entregado las facturas sus datos concretos del estudio; María preparará los PDFs.*
- *Mediante una reunión o de alguna otra manera, estar con todas las personas interesadas, para pasar la primera criba de las que quieran seguir adelante.*
- *Con las personas que quieran seguir en el proyecto, hay que seguir recogiendo más datos: firmar un documento para dejar sus datos a la comunidad, sus DNIs...*

## 3. Prozesu administratiboa / *Proceso administrativo*

Nafar Gobernuak prozesu honetarako emandako diru laguntza bat tarteko, azaroak 10 baino lehen bi gauza egin behar ditugu:

- Komunitatea kooperatiben erregistroan erregistratu.
- Herrian komunitatearen eta proiektuen aurkezpen irekia egin.

Uxunek egutegi bat aurkeztu du iraileko eta urriko lan administratibo guztiekin (egutegia Driven) eta saioen datekin:

- Bi astez behin elkartuko gara.
- Lantalde juridiko-administratiboak saioetara proposamen konkretuak ekarriko dituzte, prozesua arintzeko.
- Datorren astean lantalde juridiko-administratiboarekin bilera egingo dugu, dena antolatzeko.

Komunikazioko eta proiektuetako lantaldeek euren egutegia egingo dute hurrengo saiorako, Emunen eta Goienerren laguntzaz.

*A raíz de una subvención aprobada por el Gobierno de Navarra para este proceso, hay que hacer dos cosas para el 10 de noviembre:*

- *Registrar la comunidad en el registro de cooperativas.*
- *Hacer una presentación abierta de la comunidad y de los proyectos en el pueblo.*

*Uxune ha presentado un calendario para septiembre y octubre con las tareas administrativas que hay que hacer y con las fechas de las sesiones (calendario en Drive):*

- *Nos juntaremos cada dos semanas.*
- *El grupo jurídico-administrativo traerá propuestas concretas a las sesiones, para agilizar el proceso.*
- *La semana que viene nos juntaremos con el grupo jurídico-administrativo para organizar todo.*

*Los grupos de comunicación y proyectos traerán su calendario de tareas a la siguiente sesión, con la ayuda de Emun y Goiener.*

## 4. Komunikazioa / *Comunicación*

Zuriñek esan du komunitatearen izena Whatsappeko bozketa bidez aukeratuko dutela datorren saioa baino lehen, izena libre dagoen eskaera azkartzeko.

Whatsapp talde berria sartuko du talde motorreko jendearekin, beste taldean herrikoak ez direnak ere badaudelako.

*Zuriñe ha comentado que se elegirá el nombre de la comunidad mediante la opción de votación que tiene Whatsapp antes de la siguiente sesión, para poder acelerar la petición de certificación negativa del nombre. También creará un nuevo grupo de Whatsapp con sólo las personas de este grupo motor, ya que en el otro hay gente que no es del pueblo.*

## 5. Itxiera / *Cierre*

Hurrengo saioa: irailak 26, 18:00etan.

*Siguiente sesión: 26 de septiembre, a las 18:00.*

## 6. Egitekoak / *Tareas*

| ZER | NORK |
|---|---|
| - Juridiko-admin: bilera egin eta estatutuen atalen proposamena prestatu.<br>- *Jurídico-admin: hacer una reunión y preparas propuestas para artículos de estatutos.* | Lantalde juridiko-administratiboa<br><br>Goienerren laguntzaz |
| - Komunikazioa: komunitatearen izenaren bozketa, lanen egutegia, Whatsapp talde berria eta faktura aurkeztu dutenei euren PDFa bidali.<br>- *Comunicación: votación nobre de la comunidad, calendario de tareas, grupo nuevo en Whatsapp y enviar sus datos a las personas que entregaron su factura.* | Komunikazio lantaldea<br><br>Emunen laguntzaz |
| - Proiektuen lantaldea: pentsatu faktura aurkeztu dutenekin nola egongo garen, aurrera jarraituko duten ala ez erabaki/esan dezaten.<br>- *Grupo proyectos: pensar cómo podemos estar con las personas que han entregado las facturas, para saber si siguen adelante.* | Proiektuen lantaldea<br><br>*Grupo proyectos* |
| | |